

OÑATIKO UDALA

Oñatiko Udala «Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza» partzuergoan integratzea.

Oñatiko Udalbatzak, 2021eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran, besteren artean honako akordio hau hartu zuen:

Lehena. Onestea Oñatiko Udala «Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza» partzuergoan sartzea. Batzar Nagusian duten ordezkapenaren ehunekoaren arabera, Oñatiko Udalaren ordezkapena %0,223koa izango da.

Bigarrena. Hasierako onespena ematea «Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza»-ren estatutuei.

Hirugarrena. Hasierako onespena ematea «Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza»-ren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari. Nolanahi ere, erregelamendu honen onarpen efektiboa eta indarrean sartzea «Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza»-n inkorporatze eraginkorraren mende geratuko da. Erregelamendu hau behin betiko onartzeak eta indarrean jartzeak automatikoki indargabetzen du egun indarrean dagoen "Oñatiko Herribusa, bidaiarien garraio kolektiboko zerbitzua arautzeko

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Integración del Ayuntamiento de Oñati en el consorcio «Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa».

El Pleno del Ayuntamiento de Oñati, en sesión celebrada el pasado día 25 de febrero de 2021 tomó entre otros los siguientes acuerdos:

Primero. Aprobar la incorporación del Ayuntamiento de Oñati al Consorcio «Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa». Según el porcentaje de representación en la Junta General, la participación del Ayuntamiento de Oñati será del 0,223%.

Segundo. Aprobar con carácter inicial los Estatutos de la «Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa».

Tercero. Aprobar con carácter inicial el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera, en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la «Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa». En cualquier caso, la efectiva aprobación y entrada en vigor de este Reglamento quedará supeditada a la efectiva incorporación del Ayuntamiento de Oñati al Consorcio «Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa». La aprobación definitiva y entrada en vigor de este Reglamento supone la derogación automática de la Ordenanza reguladora del servicio de

ordenantza”.

Laugarrena. Onestea, Oñatiko Udala Partzuergoan inkorporatze efektiboaren mende, honako dokumentu hauek:

—Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena. Hitzarmen hau Oñatiko Udalak eta aipaturako Partzuergoak izenpetuko dute.

—Zerbitzuaren egungo esleipendunak, Avanza Urbanos de Euskadi S.L-k (lehen Leintz Garraioak SL-k), Oñatiko hiriko garraio publikoaren zerbitzuan tarifak bateratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena. Hitzarmen hau Udalak eta Partzuergoak sinatu beharko dute.

Bosgarrena: 2.200,00 eurokoa ekarpen ekonomikorako gastua onartzea.

Seigarrena: Oñatiko Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan izango duen ordezkariarako, Izaro Elorza Arregui andrea izenda tzea.

Zazpigarrena: Hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, herritarrek aztertu eta alegazioak, eragozpenak edo oharak aurkeztu ahal izateko. Inork horrelakorik aurkezten ez badu, behin-behineko erabakiak behin betikotzat joko dira.

Zortzigarrena: Alkate lehendakari eta haren legezko ordezkariari hartzen diren akordioen exekuzio eta eraginkortasuna bermatzeko behar diren tramiteen arabera, hitzarmen

transporte kolektivo de personas viajeras de Oñati, Herribusa”.

Cuarto. Aprobar, supeditando esta aprobación a la efectiva incorporación del Ayuntamiento de Oñati al citado Consorcio, los siguientes documentos:

— Convenio de colaboración para la implantación del sistema de integración tarifaria en el transporte público colectivo del territorio histórico de Gipuzkoa, a suscribir entre este Ayuntamiento y el reiterado Consorcio.

— Convenio de colaboración para la implantación del sistema de integración tarifaria en el servicio de transporte público urbano de viajeros de Oñati, por parte de Avanza Urbanos de Euskadi S.L (antes Leintz Garraioak S.L) adjudicataria actual del mencionado servicio; este convenio se firmara entre el Consorcio y el Ayuntamiento de Oñati.

Quinto: Aprobar el gasto de 2.200,00 euros en concepto de aportación económica.

Sexto: El Ayuntamiento de Oñati nombra a Doña Izaro Elorza Arregui representante dentro de la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa.

Septimo. Someter a información pública mediante publicación en el Boletín Oficial del Estado, el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y exposición en el tablón de anuncios del ayuntamiento durante el plazo de un mes, a fin de que los vecinos puedan examinarlo y formular alegaciones, reparos u observaciones. En el caso de que no se presente ninguno, se entenderá definitivamente adoptados los acuerdos provisionales.

Octavo: La Alcaldesa-Presidenta y su representante legal quedan facultados para la firma de cualquier documento,

edo dokumentuak formalizatzeko beharrezkoak diren agiri publiko nahiz pribatuak sinatzeko ahalmena ematea.

Oñatin, 2021eko martxoaren 8an

Alkateak

DILIGENTZIA: Iragarkia 2021eko martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman da (54 zenbakia), beraz alegazioak edo iradokizunak jartzeko hilabeteko epea apirilaren 23an bukatzen da

Idazkariak



tanto privado como público, necesario para la formalización del convenio, en los trámites necesarios para garantizar la ejecución y eficacia de los acuerdos adoptados

Oñati a 8 de marzo de 2021

La Alcaldesa

DILIGENCIA: El anuncio ha sido publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 23 de marzo de 2021(nº 54) y el plazo de un mes para formular alegaciones o sugerencias finaliza el 23 de abril.

El Secretario